Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Murgiondo Etxabe

Bergara, Gipuzkoa (1911-1999)



Aurkibidea

Biografia



1911ko otsailaren 10ean jaio zen Elorregiko Aierdi Gainekoa baserrian. Hainbat urtetan egin zuen karea etxe ondoan zuten karobian.

Zintak

BER-101

- **Proiektua**: Karobiak, txondorrak eta elurzuloak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Data**: 1994-05-01
- **Iraupena**: 36 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Emalea**: Bergarako Udala

Pasarteak

1. Karobiaren jabetza; karobiaren inguruko hainbat azalpen

- **Erref**: BER-101/003
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:01:33. **Bukatu**: 00:03:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Baserri ondoan duten karobia, beraiena da. Baina baliteke kasu batzuetan karobiaren jabetza bi baserrirena izatea. Karobia egiteko toki egokiena zein izaten zen. Beraiek harrobia ere bertan zuten, karobitik oso gertu. Labea nolakoa zen. Karea nola erretzen zen.

2. Karearen garrantzia

- **Erref**: BER-101/004
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:03:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Karobi ingurua nolakoa izaten zen. Karearen garrantzia.

3. Karea egiteko garai egokia

- **Erref**: BER-101/005
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:03:45. **Bukatu**: 00:04:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Karea egiteko sasoi egokia, maiatzetik ekainera bitartean.

4. Karea egiteko prozesuaren inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-101/006
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:04:10. **Bukatu**: 00:05:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Karea nola egiten zuten. Kareharria erretzen zuten bakarrik; egurra, sua egiteko erabiltzen zen. Harria erretakoan nola geratzen zen. Karea atera aurretik, egun batzuetan bertan uzten zen eta ondoren larrainera ateratzen zuten.

5. Karobiaren egitura

- **Erref**: BER-101/008
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Karobiaren zatiak. Hormak egiteko, harri normala erabiltzen zen. Kareharria, erretzeko bakarrik izaten zen. Arku itxura hartzen du goiko aldean karobiak; kareharriarekin eginda egoten zen. Harriak nola kargatzen ziren. Karobitik kanpoaldera, tunel bat ere egoten zen. Egurra sartzeko arku itxurako zuloa.

6. Karea eginda zegoenean ematen ziren urratsak

- **Erref**: BER-101/010
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Labe baten itxura izaten zuen karobiak. Harria erre ondoren, behera etortzen zen eta egun batzuetan bertan utzi ondoren, ateratzeko prest geratzen zen. Ondoren larrainera eramaten zuten eta handik nahi zen tokira zabaltzen zuten.

7. Karobiaren egitura; inguruko baserritarren laguntza

- **Erref**: BER-101/012
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:10:25. **Bukatu**: 00:11:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Aterpea nola egiten zuten. Karea erretzen zen bitartean, gau eta egun egon behar izaten ziren bertan. Inguruko baserrietakoak ere laguntzera etortzen ziren. Tunela, labeak haizea hartzeko balio izaten zuen. Gerora, karea ere bertatik ateratzen zen.

8. Kareharria erretzeko egurra

- **Erref**: BER-101/018
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:16:05. **Bukatu**: 00:17:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Sua egiteko erabiltzen zuten egurra, pagadarra. Egurra nola prestatzen zuten. Otarik ez zuten erabiltzen.

9. Egurraren prestaketa

- **Erref**: BER-101/019
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:17:10. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Pago abarrekin sortak egin eta ondoren meta bat egiten zuten karobi ondoan. Abuztua izaten zen garai egokiena pagoa inausi eta abarrak prestatzeko.

10. Harria kanteratik karobira nola eramaten zuten

- **Erref**: BER-101/021
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:19:00. **Bukatu**: 00:20:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Kareharria nolakoa izaten zen. Mailuarekin apurtzen zituzten harri handiak. Kanterako lana nolakoa izaten zen. Gurdi normalak erabiltzen zituzten egurra garraiatzeko.

11. Karegintzaren inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-101/022
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:20:20. **Bukatu**: 00:22:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Egurrezko urkilak, abarrei bultza egiteko. Sahatsa izaten zen egur egokiena. Tiroa garbitzeko zer erabiltzen zuten.

12. Karea soroan nola zabaltzen zen

- **Erref**: BER-101/023
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:22:10. **Bukatu**: 00:23:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Karea sorora bota eta landu egin behar izaten zen, burdinarearekin edo arearekin. Euria eginez gero, lurra lokaztu eta zuen balio izaten.

13. Karearen garrantzia soroan

- **Erref**: BER-101/024
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:23:05. **Bukatu**: 00:24:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Kareak lurra harrotu eta gozatu egiten zuen, samurtu. Egun ez da erabiltzen, ongarri kimikoak erabiltzen direlako batez ere.

14. Naturarekiko harremana zeharo aldatu da

- **Erref**: BER-101/025
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:24:05. **Bukatu**: 00:24:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Egungo bizimodua zenbat aldatu den. Naturarekiko harremana asko aldatu da.

15. Karobia gau eta egun zaindu beharra

- **Erref**: BER-101/026
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:24:45. **Bukatu**: 00:26:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Karobia prestatu ondoren izaten zuen lana. Sua eman ondoren, zaindu egin behar izaten zen gau eta egun, hiru egunez. Egurra etengabe bota behar izaten zitzaion.

16. Karegintzaren inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-101/028
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:26:05. **Bukatu**: 00:28:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Karobiari sua nola ematen zitzaion. Hasiera batean lasto-azao batekin ematen zitzaion sua egurrari. Gauetan 2-3 lagun egoten ziren karobia zaintzen. Su indartsua behar izaten zen etengabe. Harriaren kolorearen arabera, karea erreta zegoen edo ez jakiten zuten.

Transkripzioa
- E... ze erabiltzen zan sua itteko? Sua zelan emoten jakon? Brasia itten ziñuen edo...?
-Brasia, brasia ya sartzen [zan]. Lasto [azao] bat edo lasto... lasto moltzo bat edo erun, [lasta azao] bat edo zeoze, sutu ta abarrak sartzen hasi, eta samur itten zan sua! Sua samur itten zan gero.
-Bai?
-Ta gero, segidu, segidu, segidu ein, gau ta egun; kontinuo, ez zeuen lorik eitteik. Han euenak argi egon bihar eban. [...] erretzen zan ondo.
-Oseake, labara egurra bota ta gero lastuakin emuten jatzuen?
-Ez, hasieria lastuakin bizten dan momentua, e. Lasto azao bat eruen eta bizten dan momentua.
- Zer eruan esan dozu?
-Lasto azao bat. Zuek baserrixan garirik ez dozue ezautu zuek!
-Ez, nik ez.
-Ez, zuek be ez, ezta? Lasto... lasto fardo bat, lasto pakete bat eruaten zan. Ta gero harekin sua in ta biztu ta hari abarrak emun ta... samur itten zan, e. Aiena!
-Eta gero, eta gero, zenbat pertsona esan dozu egoten ziñiela?
-Ba, bi-hiru lagun kontinuamente e; egunez bebai, baiña egunez gutxiau bebai. Baiña gabatan bi-hiru lagun tertulixia eiñaz han egoten giñan, e. Sakonekua be bai, Abeletxekua be etorten[zan], ta guria be bai eta beheko etxekua be etorten jakun; asike, bueno...
-Ta zenbat egunetan?

- Hiru egun, hiru egun ta hiru gau zien, e. Konparaziñorako, gaur goizian ixotzen bazan, ba hirugarren egun gaberako ya akabatzen zan; asike, holaxe... baiña ondo. Ta kare mordua ein ta kare ona eitten da han, bueno! Kare bat eitten zan... izugarrixa, e!
-Sua ze izaten zan ahalik eta haundixena beti, ala...?
-Bai, inddartsu-inddartsu kontinuo egon bihar da han, e. Kontinuo eon bihar eban sua e, bape emendau barik, kontinuo egon bihar zan, e.
-Ta indartsua, ezta?
- Inddartsu, bai, [...], inddartsu egon bihar zan sua bera.
-Ta hori, harri pillua, orduan, gorri-gorri egongo zan, ezta?
-Bai, bai gorri-gorri; goixen, gaiñien, gorri-gorri ikusten zan, e, sua han pasatzen zanian gorri-gorri ikusten zan. Ta gero azkenian, esan dotena, muskerran kolore horixa geratzen zan. “Ointxe erre da ba, ein da ba!”, ezaun izeten eban, lagartuan koloria eukitzen eban.
-Karia erre, esaten dozu, ezta?
-Bai, karia erre, bai.
-Egosi ez?
-Ez, ez, karia erre, karia erre; iketzak egosi. Iketzak egosi ta karia erre eitten da.

17. Karea nola teratzen zuten karobitik

- **Erref**: BER-101/029
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:28:10. **Bukatu**: 00:28:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Karea nola eta nondik ateratzen zuten. Burdinazko atea zabaldu eta pala handi batekin ateratzen zuten karea. Zuzenean gurdira bota eta handik etxera eramaten zuten. Karea larrainean utzi eta hoztu arte bertan izaten zuten. Ondoren, soroan zabaltzen zuten.

18. karearen erabilera desberdinak

- **Erref**: BER-101/032
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:30:05. **Bukatu**: 00:31:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Erreka aberatsa zuten inguruan: aingirak, amuarrainak; etab. Batzuk, arrainak harrapatzeko karea botatzen zuten uretara.

19. Karobiaren egitura

- **Erref**: BER-101/035
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:32:20. **Bukatu**: 00:33:40

- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Karobiaren egitura; noizkoa zen. Karobi zaharrak aprobetxatzen ziren karea erretzeko.

20. Karearen erabilera soroan

- **Erref**: BER-101/037
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:34:10. **Bukatu**: 00:34:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Karearen erabilera. Lurra gozatu egiten zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-20

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com